

Osatzen

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Zortzi ordu lotarako, zortzi ordu lanerako eta zortzi ordu bizitzeko, horrela banatu zuten eguna industrializazioan, lana bizia ez balitz bezala, eta bizia lana, eta loa bizia. Haurtzarora eta gaztarora enplegurako prestatzeko, helduarora ordaindutako lanerako, eta hirugarren adina erretirorako... orain arte behintzat. Erdian beti enplegua –enplegu batzuk– eta honen inguruan, denbora soberakinetan, gainontzeko guztia. «Hemen, haratxe-honatxe». Hitz ho-

riekin deskribatzen zuen amatxik bere eguneroko martxa: sukaldatu, etxekoak zaindu, beren emozioak sostengatu, garbitu, eta hori dena kudeatu. Lanok izozmendi batean irudikatuko bagenu, urpean kokatuko genituzke denak.

Mundu mailako pandemia bat igaro dugu eta pasatu ez balitz bezala egiten saiatzen gara. «Elkartuago aterako gara, garrantzitsua zer den ohartu gara». Horixe uste genuen, baina osasun zerbizuetan murrizketak bertzerik ez da ikusten, eta jendearen arteko harremanetan, topaketa hunkigarri bat, besta

handi bat irudikatua nuena hoztua aurkitu dut. Denak topera, kafe baterako astirik gabe.

«Gauza inportanteak mantso doaz», bota zuen partaide batek Emaginen (ez) amatasunen jardunaldietan, eta iltzatuta daukat ideia. Haurrek, eta baita gure gorputzek ere, denbora lasaiagoak eskatzen dituzte, eta tiraka eramaten ditugu. Titia emateak, zortzi-zortzi-zortzi zatiketa hori 24 bihurtu duen bezala, bere neke guztiarekin –hau ere lan bat baita– osatu egiten nauela sentitzen dut. •

Futbola niri 5!

**Xabier Mikel
Errekondo**

Ez dakit kritika egiteko eskubiderik ematen duen, baina hasi aitortzarekin hasiko dut idatzia. Bai, nik ere nerabezaroan futboleko jokatu nuen. Lehenik Usurbilen bertan eta ondoren Lasarteko Texas eta Michelin taldeetan.

Zelaian zein hondartzan jokatu dut eta haur batek bezalaxe oroitzapen ederrak ditut gainera. Kirol aparta da futbola, baina kirolzale amorratua naitzen arren gorrotagarria zait, gorrotarazi egiten didate hainbeste dezepziok; gurasoen jokabide higuigarriek, jarraitzaile ero erasotzaile antolatuek,

antolatzaileek kirolaren balioak indartzeko neurri bakar bat ere hartzen ez duten federazio arduragabeek eta, okerrera, agian lokatz hauetako ondorio naturalenak, jokoaren esentzia barnerratu gabeko jokalaria dira, eliteari begira heziak etxean, taldean eta agian lagunartean, fama eta diru hutsak amets, gosez hezten eta hazten.

Gose horri, muturreraino eramana, erantzungo lioke iragan urtean Florentino Perezek iragarri zuen 12 taldeko Europako SuperLigak, ez balitz azken unean Ingalaterrako 6 klubek atzera egin zutelako jarraitzaileen erantzun

mindu eta izugarriagatik eta ondorioz proiektua hanka-motz utzi.

Gose da FIFA Qatarren interesak bete eta igandean hasi zen 2022ko mundial lotsagarria antolatzen duenean; nonbait FIFARI ustelkeriak ez dio usain txarrik eragiten. Noiztik ote.

Horiek horrela, futbolaria niri 5! Baina kirola bera ederra izanik eta errurik ez duenez, hona nire aholkutzua: elitean ere futbolaren esentzia sentitu nahi duena Ingalaterrara doala, eta nahi ez duena... Doha-la. Hona Maradona Manu Chaoren ahotik: <http://www.manu-chao.net/news/no-qataran> •